


# Adineko pertsonak eta bide segurtasuna

Sentsibilizazio-jarduerak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD


## Aurkezpena

Dokumentu hau adineko pertsonekin saioak dinamizatzen dituzten pertsoneri zuzenduta dago. Jarduerak dituen programazioa da eta jarduera horien helburua da nagusitzen garen neurrian bide-testuinguruan arreta handitzeko beharraz gogoeta eragitea.

Trafikoa eguneroko bizitzan dugun beste alderdi bat da, hainbat arrisku dituena. Dena den, bizitzako zein bideko aldaketetarako beharrezko moldaketa ez da beti erraz gertatzen.

Sarritan, adineko pertsonak hautatu beharra dute ibilgailua gidatzen jarraituko duten ala ez. Alde batetik, gidatzeak ahalbidetzen die beren jarduerari eta autonomiari eustea; baina, bestetik, horren ondorioz, batzuetan egoera estresagarriei eta arriskutsuei aurre egin behar diete, are gehiago gidatzeko ohitura galtzen joan direnean edo zenbait medikamenturen eraginpean gidatzen dutenean.

Zahartze-prozesuak ez du nahitaez eragin behar nork bere autonomiari uko egitea. Aitzitik, moldatzeko mekanismoak garatzeko garaia da, adineko pertsonen eta beren ingurukoaren segurtasuna zaintzen lagunduko dutenak.



# Adineko pertsonak eta bide segurtasuna

## Aurkibidea

### Jardueren egitura

#### Hausnarketa, arretiko ideiei buruzkoa

- 1. jarduera: Zotzeko irudiak
- 2. jarduera: Ibilgailuen zarata
- 3. jarduera: Nire autoa

#### Eskaintza, esperientzia berriena


- 4. jarduera: Tea zerbitzatzeko
- 5. jarduera: Zenbat eta gehiagotan jokatu, gehiagotan galdu
- 6. jarduera: Zer dakizu medikamentuei buruz?

#### Aplikazioa

- 7. jarduera: Hiriko arriskuak
- 8. jarduera: Gidatzeko betaurrekoak
- Eranskina: Pedroren dilema*
- 9. jarduera: Ez egin korrika

#### Eranskina

*Pedroren dilema*



## Jardueren egitura

Errealitate ugariak kontuan izanik, gerta daiteke jarduera hauek era desberdinetan erabiltzea. Halere, gomendatzen dugu saio bakoitzak hiru motako jarduera **HEA** egiturarekin egitea: H motako jarduera bat, E motako beste bat, eta azkenik A motako beste bat.

**H** motako jarduerak, edo aurretiko ideiei buruzko **hausnarketak**, gaiaren inguruko esperientziak, ezagupenak eta usteak partekatzeko baliagarriak dira. Haiei esker, kontzeptuzko akatsak detektatu eta hitzak era berdinean erabiltzeko aukera izango dugu.

| Jarduera zbkia.                         | Jardueraren izenburua  |
|---|--|
|   | <p><b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b></p> <p>Jardueran lantzen diren mugikortasun segururako gaitasunak. <a href="#">Informazio gehiago.</a></p> <p><b>Jarduera mota</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li><b>H</b> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa: aurretiko ideien inguruan hausnartzeko eta horiekin lotzeko jarduera.</li><li><b>E</b> Eskaintza, esperientzia berriena: esperientzia, kontzeptu, trebetasun eta jarrera berriak sartzeko jarduera.</li><li><b>A</b> Aplikazioa: simulazioa eta proba egin eta ondorioak ateratzeko jarduera.</li></ul> <p>Gomendatzen dugu saio bakoitzean hiru jarduera <b>HEA</b> egiturarekin egitea.</p> |
| <b>Helburuak</b>                        | <ul style="list-style-type: none"><li>Jardueraren helburu pedagogikoak.</li></ul>  |
| <b>Eranskinak</b>                       | <ul style="list-style-type: none"><li>Jarduera garatzeko behar diren dokumentuak.</li></ul>  |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Bibliografia, esteka interesgarriak edo jarduerarekin edo haren edukiarekin zerikusia duten dokumentuak.</li></ul>   |

**E** motako jarduerak **esperientzia** berriak sortzeko helburua dute, eta aurretiko ezagupenak, trebetasunak edota jarrerak aberasten dituzte.

Azkenik, **A** motako jardueren bidez nahi da landutako edukiak bakoitzaren errealitatean **aplikatzea**.

Todas las actividades siguen la siguiente estructura:

### Garapena

#### Prestatzailearentzako oharrak

Hemen adierazten dira proposatutako jarduera behar bezala garatzeko beharrezko xehetasunak eta/edo kontzeptuak.

#### Parte-hartzaileentzako jarduerak

Proposatutako jardueraren garapena.

### Ondorioak

| 1. jarduera   | Zotzeko irudiak  |
|---|--|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Neure burua eta neure emozioak kudeatzea.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input checked="" type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |  |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Nire mugez jabetuta nagoen hausnartzea.</li><li>• Laguntza eskatzearen garrantziaz jabetzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –  |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>                               |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak parte-hartzaile bakoitzari 18 zotz emango dizkio. Horiek erabiliz, bakoitza bere aldetik eta isilik, trianguluzko piramide bat egin behar dute. Marrazkiak prestatzailearentzat dira eta parte-hartzaileek ez dituzte ikusi behar.



Uste badute bakarrik ezin dituztela egin, prestatzaileari laguntza eskatu ahal diote. Laguntza izango da bi txalo egitea irudia zuzena bada eta ezer ez egitea irudia ondo ez badago.

Irudia egin eta prestatzaileak zuzentzat jo ondoren, parte-hartzaile bakoitzak, ezer esan gabe, berriro 6 zotz mugitu behar ditu sei puntako izar baten irudia lortu arte.

Aurreko irudian bezala, uste badute bakarrik ezin dituztela egin, prestatzaileari laguntza eskatu ahal diote. Laguntza izango da bi txalo egitea mugitu den zotza egokia bada eta ezer ez egitea zotzaren mugimendua zuzena ez bada.

Parte-hartzaileak, laguntzarekin edo laguntzarik gabe, irudia osatzea lortzen badu, prestatzaileak egiaztatuko du irudia zuzena dela eta desegingo du inork kopia ez dezan.

Irudia lortuko duen parte-hartzaileak bere kideei lagundu ahalko die prestatzailearen premisa berak erabiliz: bi txalo egitea zotzaren mugimendua zuzena bada eta ezer ez egitea ondo ez badago.

Parte-hartzaile guztiek irudia egiten dutenean, parte-hartzaile bakoitzak azalduko du nola erreakzionatu duen erroka horren aurrean:

- *Uste zenuen bakarrik egin ahal zenuela?*
- *Uste zenuen baino denbora gehiago ala gutxiago behar izan duzu?*
- *Laguntzarik eskatu duzu? Zergatik?*
- *Espero zenuen laguntza zen?*

Jarraitzen du

## 1. jarduera

### Zotzeko irudiak (jarraipena)

- *Inoiz gertatu zaizue zerbait bakarrik egin ahal zenuela uste izatea eta gero laguntza eskatu behar izatea?*
- *Zer egingo zenuke medikuarengana autoz joanez gero eta bisitaren ondoren ondoezik bazeunde?*

### Ondorioak

- Asko dira hasieran erraztat hartu eta geure kontura burutu nahi ditugun jarduerak; baina, behin hasiz gero, zailtasuna hobeto ikusi eta ulertzen dugu beharbada uste genuen baino zailagoa dela.
- Garrantzitsua da zeregin bat gauzatzeko dugun gaitasuna eta laguntza eskatzeko gure ausardia etengabe berrikustea, batez ere bide-testuinguruan.



Atzera

| 2. jarduera  | Ibilgailuen zarata   |
|--|--|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Arreta.</li></ul> <b>Jarduera mota:</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input checked="" type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |  |
| <b>Helburuak</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• Arretaren garrantzia bide-testuinguruan identifikatzea.</li><li>• Kaletik ibiltzen naizenean, kontzienteago izatea eta nire zentzumenen erabilera areagotzea</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>  | –  |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>   |

## Garapena

Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak parte-hartzaileei proposatuko die bideo hau arretaz entzutea: <https://www.youtube.com/watch?v=VMH3P-N5eHk>

Ikusi ondoren, galdera egingo du:

- *Zenbat aldiz entzun duzue klaxona?*

Erantzunak konparatuko dira eta eztabaida bati hasierako emango zaio gai hau hartuta: arreta-galtze asko dagoenean, zaila da gure segurtasunerako lagungarria izan daitekeen edozein seinale behar bezala hautematea.

Prestatzaileak eztabaida piztu dezake entzumenaren erabileraz hirian, gidari zein ibiltari gisa, mugitzeko.

- *Zentzumen hori erabiltzen dugu gure mugikortasunean?*
- *Zertarako? Zein egoeratan gertatzen zait erabilgarri eta zeinetan ez?*

## Ondorioak

- Arreta-galtzea dugu ezbeharren kausa nagusienetako bat eta, hortaz, bilobekin edo telefonoz hitz egiten edo beste gauza batzuetan pentsatzen ari bagara, istripua izateko ditugun posibilitateak handitu egiten dira.

| 3. jarduera   | Nire autoa   |
|---|--|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Egokitzapena eta malgutasuna.</li><li>• Taldeko presioarekiko erresistentzia.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input checked="" type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |  |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gidatzeko ohituraren galeraz hausnartzea.</li><li>• Ibilgailua eta haren segurtasun-elementuak mantentzearen garrantziaz jabetzea.</li><li>• Erabakiak hartzean bide-segurtasunaren irizpideak kontuan izatea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –  |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>   |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Parte-hartzaile guztien artean autoen segurtasun-elementuen zerrenda egingo dute (uhalak, gurpilak egoera onean, balazten likidoa, etab.) eta azalduko dute bide-segurtasunari begira zein elementu den garrantzitsuena.

Prestatzaileak hurrengo kasua poliki irakurriko du eta parte-hartzaileek, talde txikietan banatuta, bukaera bat erabakiko dute.

#### Kasua: Nire autoa

Borja orain dela 9 urte erretiratu zen eta harrezkero lasai bizi da bere emaztearekin herri txiki batean ezereen falta izan gabe. Autoa gero eta gutxiago erabiltzen du. 17 urte baino gehiago ditu eta ez dio jaramon handirik egiten. Gaur arratsaldean bere bilobak deitu dio gidabaimena atera duela esateko eta, hark autoa askotan erabiltzen ez duenez, gidatu nahiko lukeela. Borjari ideia ez zaio asko gustatu, zeren autoak ez baitu gaur egun ibilgailuek daramatzaten segurtasun-elementu guztiak. Gainera, nahiz eta berak ia ez duen erabiltzen, ez du premialdia dagoenerako autorik gabe geratu nahi.

*Nola bukatuko da istorioa? Autoa utziko dio ala ez?*

## Ondorioak

- Ibilgailua izatea pertsonen autonomiarako lagungarria da, baina egoera txarrean izateak arrisku handiago eragin dezake premialdiak baino, horretarako gordeta dugun arren.
- Gidari berria ibilgailu zahar batean joatea istripua izateko arrisku-faktoreen elkarketa da.



| 4. jarduera   | Tea zerbitzatzen  |
|---|---|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Neure burua eta neure emozioak kudeatzea.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |   |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gauzak egiteko behar den denbora hartzearen eta presaz ez ibiltzearen garrantziaz hausnartzea.</li><li>• Alde batetik bestera, oinez zein autoz, nahikoa denboraz joatearen garrantziaz jabetzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –   |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>  |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

5 metro luze inguruko koloretako 2 soka luzeren bidez lurrean bide estu bihurtu bat markatuko da, pertsona bat igarotzeko adina.

Prestatzaileak parte-hartzaileei proposatuko die errei horretatik ahalik eta azkarren ibiltzea, esku bat bizkarrean eta beste eskuan pilota bat daukan erretilu bat izanda (tea zerbitzatzera joango balitz bezala).

Boluntario batek idatziko du bakoitzak zenbat denbora behar izan duen, zenbat aldiz zapaldu dituen sokak edo zenbat aldiz atera den erreitik eta erretiluko pilota erori zaion.

Geroago, ariketa berriro egingo da, baina parte-hartzaile bakoitzak erabil dezake beharrezkotzat joko duen denbora guztia.

Bigarren itzuli honetako akatsak zenbatu eta lehenengo aukeraren eta bigarrenaren arteko aldeei buruz mintzatu dira:

- *Ahalik eta denbora gutxien erabiltzeko ideia dela eta, zeri ematen diozue lehentasuna, arin ibiltzeari ala zeregina ondo betetzeari? Zer nahiago duzue, soka gaintu ala pilota bota?*
- *Ezer aldatu duzue (zuen estrategia) bigarren txandan?*
- *Uste duzue gauzak ahalik eta azkarren egiteagatik gure segurtasuna arriskuan jartzen dugula?*

## Ondorioak

- Denbora luzatuz gero, akatsak gutxitu ohi dira.
- Behar den denbora erabiltzeak gauzak hobeto egiten laguntzen du, akats gutxiagorekin. Pertsona bakoitzak behar duen denbora desberdina izan daiteke.
- Denbora garrantzitsua da gure mugikortasunean baldin eta garaiz balaztatzen badugu, garaiz ibiltzen bagara, abiadura egokian bagoaz, etab.

| 5. jarduera  | Zenbat eta gehiagotan jokatu, gehiagotan galdu  |
|--|---|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li></ul>   |   |
| <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |   |
| <b>Helburuak</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• Arriskua hartzeaz hausnartzea.</li><li>• Zuhurrak eta ausartak izatearen abantailez eta eragozpenez jabetzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>  | –   |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>  |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak parte-hartzaileei proposatuko die lau taldeetan jartzea. Talde bakoitzean pertsona batek kartak banatuko ditu, beste batek puntuak zenbatuko ditu eta beste biak 7 eta erdian arituko dira. Prestatzaileak jokalaria bakoitzari isilean kontsigna bat emango dio.

#### 1. kontsigna

Kartak eskatzen jarraitu behar duzu gutxienez 6 puntu izan arte.

#### 2. kontsigna

Planto egin behar duzu 4 puntu dituzunean.

Kartak banatzen dituen pertsonak lehenengo txanda hasiko du. Jokalariak beren kartak ezkutuan begiratu dituzte eta karta bat gehiago nahi duten ala ez erabakiko dute, 7 eta erdi lortzetik hurbil daudelako iritziaren eta beren isileko kontsignaren arabera. Partida amaitu ondoren, puntuak zenbatzen dituen pertsonak txandaren zenbakia idatziko du, biotako zeinek irabazi duen eta galtzaileak zenbat puntu bildu duen. Eta horrela elkarren segidan 8 txanda gutxienez.

Txanda batzuk amaituta, puntu-zenbaketa egin eta zeinek irabazi duen txanda gehien adieraziko da eta jokalariek zituzten kontsignak azalduko dira.

Prestatzaileak elkarrekin hausnartzeko galdera batzuk egingo ditu:

- *Nortzuek bildu dute puntu gehien, arriskatu diren pertsonak ala arriskatu ez direnek?*
- *Nortzuek irabazi dute gehiagotan, arriskatu diren pertsonak ala arriskatu ez direnek?*

## 5. jarduera


### Zenbat eta gehiagotan jokatu, gehiagotan galdu (jarraipena)

Baliteke hautematea gehiagotan irabazi dutela gehien arriskatu diren pertsonak (gutxienez 6 puntu izan arte kartak eskatzen jarraitzen baitzuten); baina, halaber, horiek dira 7 eta erdi gainditzeagatik gehiagotan galdu dutenak.

- Zuen ustez, zein da estrategiarik arrakastatsuena (6ko puntuena ala 4ko puntuena)?
- Uste duzue arriskatzea beti aukerarik onena dela?
- Zuen ustez, zein egoeratan ez da ona arriskatzea?

### Ondorioak

- Mugikortasunaren testuinguruan, zenbat eta gehiago arriskatu, orduan eta posibleagoa da gehiagotan lehenago heltzea, baina istripua izateko posibilitate gehiago ere baduzu.



Atzera

| 6. jarduera   | Zer dakizu medikamentuei buruz?   |
|---|---|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Neure burua eta neure emozioak kudeatzea.</li><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Egokitzapena eta malgutasuna.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |   |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Medikamentuen erabileraz eta beroriek hartzearen ondorioez hausnartzea.</li><li>• Zenbait medikamenturen eraginpean gidatzearen arriskuez jabetzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –   |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>  |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak ideia-jasa proposatuko du medikamentuen gaiaren inguruan, eta galdera hau egingo du:

- *Zein medikamentu hartzen ditugu eta zer ondorio dute?*

Parte-hartzaileek galderari erantzungo diote prestatzaileak, esku hartu gabe, entzuten duen bitartean eta ideiak bitan banatutako arbel batean (zati batean medikamentuak eta bestean ondorioak) idazten dituen bitartean.

Ideiak eta iruzkinak agortzen direnean, prestatzaileak proposatuko du ideiak medikamentu-moten arabera elkartzea (adibidez: analgesikoak, antiinflamatorioak edo tentsio, kolesterol eta abarretarako medikamentuak) eta ondorio-moten arabera (adibidez: ongizatea, erlaxazioa, lokuma, urduritasuna, etab.).

Prestatzaileak parte-hartzaileei galdetuko die zein jarduera egiten duten medikamentuen ondorioak direla eta. Adibidez, medikamentuak lasaitzen banau, hartzen dudanean sofán atsedean hartzen dut pixka batean; edo, medikamentuak lokuma eragiten badit, lo-kuluxkatxo bat egiten dut

- *Uste duzue arriskuan jarri ahal garela hartzen ditugun medikamentuekin bat ez datozen jarduerak egiten baditugu?*
- *Gida daiteke medikamentuak logura eragiten badit? Txangoa egin daiteke medikamentuak gehiegi lasaitzen banau?*

## Ondorioak

- Medikamentu askok modu larrian aldatzen dute pertsonaren egoera fisikoa eta; gidatu beharra badago, ez dira gomendagarriak.
- Ez ditugu gutxietsi behar medikamentuen ondorioak.

| 7. jarduera   | Hiriko arriskuak   |
|---|--|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li><li>• Ingurunearen azterketa.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |  |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Oinezkoek hirian dituzten arriskuei buruz hausnartzea.</li><li>• Oinezkoentzat zein jarrera eta jokabide diren seguruagoak identifikatzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –  |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>   |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak parte-hartzaileei galdetuko die adineko pertsona batek hiritik ibiltzean topatzen dituen arriskuei buruz. Deskribatutako elementuak eta/edo jarrerak labur idatziko ditu arbel batean.

#### Adibidez:

Semaforoak denbora gutxi egoten dira berdez, autoak oso azkar doaz, espaloian aparkatutako motoek espaloitik jaistera behartzen zaituzte, bizikletak espaloitik doaz, etab.

Prestatzaileak nabarmenduko du adierazi dituzten elementu gehienek gidarien jarrerarekin zerikusia dutela eta, bestetik, ez dagoela adibide gehiegi oinezkoek berek dituzten jarrerei buruz.

- *Batzuetan zein jokabide edo jarrera izaten dute beren segurtasuna arriskuan jartzen duten oinezkoek?*

#### Adibidez:

galtzada diagonalean zeharkatzea, edo horretarako diren guneeetatik kanpo (oinezkoentzako pasabidea), semaforoak anbar-argiz edo gorriz pasatzea, telefonoz hitz egiten edo arreta galdurik joatea, geldi dagoen autobus baten aurretik igarotzea, atzetik martxan datorren beste ibilgailu bat beharbada agertuko dela pentsatu gabe, etab.

- *Oinezkoak horietako zein ekintza-motatan eror daitezke nabarmenago?*
- *Oinezko gisa zer egin dezakegu hain bide-testuinguru konplexuan bizirik irauteko?*

## Ondorioak

- Oinezkoek gaitasuna dugu geure segurtasunean eragina izateko; hain zuzen, gure jarrera eta gure jokabideak zainduz.

| 8. jarduera   | Gidatzeko betaurrekoak   |
|---|--|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Neure burua eta neure emozioak kudeatzea.</li><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |  |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Nire egoera fisikoaz eta nire mugez jabetzea.</li><li>• Hartzen ari naizen eta gainerako pertsonari eragin diezaiekedan arriskuaz hausnartzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Pedroren dilema.</a></li></ul>   |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>   |

## Garapena

### Prestatzailearentzako oharrak:

Prestatzaileak dilema moralaren orientabide metodologikoei buruzko bideoa kontsulta dezake jarduera hau egin baino lehen:

[https://www.youtube.com/watch?v=tK\\_1qocAAFE](https://www.youtube.com/watch?v=tK_1qocAAFE)

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak Pedroren istorioa irakurriko du. Horren ondoren, parte-hartzaileek segundo batzuetan erabaki beharko dute zer egingo luketen istorioaren protagonistak izanez gero.

Nork bere erantzuna hautatu ostean, parte-hartzaileak bi taldetan jarriko dira (nortzuek gidatuko luketen betaurrekorik gabe eta nortzuek ez). Halaber, banaketaren barruan hiru edo lau pertsonako taldeak egingo dituzte nork bere erabakia hartzeko kontuan izan dituen arrazoiak eta argudioak denon aurrean azaltzeko.

Talde guztiek azalduko dute zergatik hartu duten beren aukera eta argudio horiei aurka egiteko eta argudioak alderatzeko eztabaida ordenatua egingo da. Edozein parte-hartzaile alderdiz alda daiteke nahi duenean.

Prestatzaileak eztabaidaren bukaeran galdera hauek egin ditzake:

- *Zein arrazoi eta argudio izan duzue erabakia hartzeko?*
- *Erabakiak zer eragin du Pedroren segurtasunean edo autobabesean?*
- *Zer eragin du Pedroren erabakiak istorioko gainerako pertsonengan?*

Egokia da prestatzaileak horren inguruan duen iritzia ez ematea eta ekarpen guztiak baliozkotzat eta errespetagarritzat jotzea.

## Ondorioak

- Dilemak ez dauka ondorio unibokorik.

| 9. jarduera   | Ez egin korrika   |
|---|---|
| <b>Mugikortasun segururako gaitasunak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.</li></ul> <b>Jarduera mota</b> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Hausnarketa, aurretiko ideiei buruzkoa.</li><li><input type="checkbox"/> Eskaintza, esperientzia berriena.</li><li><input checked="" type="checkbox"/> Aplikazioa.</li></ul> |   |
| <b>Helburuak</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Beste pertsona batzuei gogorarazten dieguna beti ez dugula betetzen kontuan hartzea.</li><li>• Gure segurtasuna handitzearen eta eredu izatearen garrantziaz hausnartzea.</li></ul> |
| <b>Eranskinak</b>   | –   |
| <b>Informazio eta baliabide gehiago</b>   | <ul style="list-style-type: none"><li>• <a href="#">Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.</a></li></ul>  |

## Garapena

### Parte-hartzaileentzako jarduerak:

Prestatzaileak parte-hartzaileei galdetuko die, etxetik irteten direnean, maite ditugun pertsoneri esaten dizkiegun esaldiez eta horren erabilgarritasunari buruzko eztabaida bultzatuko du. Adibidez, ez ibili arin, joan kontu handiz, etab.

- *Uste duzue aholku horiek erabilgarriak direla?*
- *Zer aholku ematen digute maite ditugun pertsonak?*
- *Betetzen ditugu? Kontuan hartzen ditugu? Nola?*
- *Zer ekintza burutzen dugu kalera irteteen gure segurtasuna handitzeko?*

Talde osoan edo talde txikietan erantzun ondoren, prestatzaileak proposatuko du denon artean aholku batzuei buruz mintzatzea, eta galdetuko du esan eta/edo bete ohi ditugun.

- *Gurutzatzean begiratu beti bi aldeetara*
- *Gurutzatu seinaleztatutako tokietatik*
- *Ibili espaloitik*
- *Espaloian itxaron oinezkoentzako semaforoa berde jarri arte.*
- *Ez ibili arin, ez joan azkar*
- *Erne ibili ibilgailuen artean (aparkalekuak eta eraikinetarako sarrerak)*
- *Ez gidatu edo ez joan bakarrik medikamentu gogorren bat hartu baduzu*
- *Hautatu biderik seguruena (argitasun handiagoa duena, espaloi zabala, etab.) nahiz eta pixka bat luzeagoa izan.*

## Ondorioak

- Sarritan, helduak gazteenei segurtasuna handitzeko eta bideetako arriskurik ez hartzeko gomendioak eta aholkuak ematen dizkie, baina berak ez ditu praktikan jartzen bere aholkuak.
- Garrantzitsua da eredugarria izatea eguneroko ekintzetan eta, horrela, ematen ditugun aholkuekiko koherentzia erakustea.

## Eranskina

### Pedroren dilema

Pedro asteazkenero autoz joaten da bere biloba hartzera ikastetxera. Berarentzat egun hori garrantzitsua da, zeren baliagarri sentitzea eta bere semeari hark uste duen bezain nagusi ez dela erakustea gustatzen baitzaio.

Kalean dagoenean, konturatu da betaurrekoak ahaztu zaizkiola eta erlojuari begiratzean ikusi du gutxi falta dela neskatileta klasetik irteteko.

Ez du berandu iritsi nahi bere semea seguru haserretuko delako edo bilobaren bila joateko ondo ez dagoela pentsatuko duelako. Bestetik, ez du nahi ikastetxetik ateratzean bilobak inor ez aurkitzerik. Betaurrekoak bakarrik telebista ikusteko eta gidatzeko erabiltzen ditu.

Ez dauka denbora asko. Azkenean, Pedro...

---



Argitaraldia: 1.a, 2015eko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Segurtasun Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Koordinatzaileak: M.<sup>a</sup> Jesús Iturralde y Martin Gil

Egilea: Formaccio

Irudiegilea: Iñigo Sarasola

Diseinua eta maketazioa: EkipoPo